



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 4a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2014an egindako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2014an egindako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2014an egindako eragozpen-oharrei buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2014an egindako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (3. or.).
 - II.** Eragozpen-oharrak (3. or.).
 - III.** Helburua, norainokoa eta mugak (4. or.).
 - VI.** Ondorioak eta gomendioak (5. or.).
1. eranskina. Gure eskaerari erantzun ez dioten mankomunitateen zerrenda: (8. or.).
 2. eranskina. Gure eskaerari erantzun ez dioten udalen zerrenda: (8. or.).

I. SARRERA

Aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren esparruan, barneko kontrolaren eta kanpo-koaren arteko koordinazio-maila indartze aldera, eta Nafarroako Kontuen Ganberak dauzkan fiskalizazio eskumenekin bat, 2015eko ekitaldirako fiskalizazio planean sartu zen udaletako eta mankomunitateetako kontu-hartzaileek 2014an egindako eragozpen-oharrei buruzko txosten bat egitea.

Txostenak hiru atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, labur azaldu dugu eragozpen-oharrei buruzko araudia. Hirugarren atalean, txostenaren helburuak, norainokoa eta mugak jaso ditugu, eta laugarrenean egindako azterlanetik eratorri diren ondorio eta gomendioak.

Lana oinarritu da eskatutako informazioari emandako erantzunetan, eta administrari batek, auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak ematen dizkiegu toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. ERAGOZPEN-OHARRAK

Eragozpen oharrak arautzen duen foru araudia Nafarroako Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea da.

"245. artikulua.

1. Organo kontu-hartzailea, kontu-hartzailetzaren eginkizunean aztertzen duen egintza, agiri edo espedienteen mami edo formarekin ados ez badago, erabaki edo ebazpena hartu baino lehenago enurak idatziz aurkeztu beharko ditu.

2. Desadostasuna toki entitateen edo horien erakunde autonomoen aldeko eskubideen onarpen edo likidazioari badagokio, enura-agiri bat idatziko da eta ez du, inolaz ere, espedientearen izapidetzea etenen.

3. Enura horrek gastuen eskuragarritasuna, obligazioen onarpena edo ordainketen agindua ukitzen baditu, espedientearen izapidetzea etenen da, enura horri hurrengo kasu hauetan soluzioa eman arte:

- a) Kredituaren ez-nahikotasunean oinarritzen bada edo proposatutakoa egokia ez bada.*
- b) Ordainketa aginduak egiaztatzen dituzten agirietan akats larriak hautematen direnean edo horiek sortzen dituzten egintzak fiskalizatu gabe badaude.*
- c) Espedienteari funtsezko zaizkion betebeharrak edo izapidetzeak espedientearen jartzen ez direnean.*
- d) Enura, obra, hornidura, eskurapen eta zerbitzuen egiaztapen materialen ondorio direnean.*

246. artikulua

1. Enura hori ukitzen duen organoa horrekin ados ez badago, toki entitatearen Lehendakariari dagokio desadostasun hori ebaztea, ebazpena exekutiboa izango delarik. Ezin izanen du inolaz ere ahalmen hori besteen eskutan utzi.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa galarazi gabe, desadostasun hori ebaztea Udalaren Osoko Bilkurari legokioke, enurak:

- a) Kredituaren ez-askitasunean edo desegokitasunean oinarriturik badaude.*
- b) Obligazio edo gastuei badagozkie eta horien onespena Osoko Bilkuraren eskumena bada.*

3. *Organo kontu-hartzaileak toki entitatearen Lehendakariak hartu dituen ebazpen guztiak bilduko dituen txostena igorriko du Osoko Bilkurara, hau da, egindako enuren kontrakoak direnak, eta diru-sarrera arloan hauteman diren akats garrantzitsuenen laburpena.*

4. *Exekuzio-oinarrietan edo, horiek ez daudenean, Aurrekontua onesten den unean Osoko Bilkurak hartzen duen erabakian, artikuluko honetako 2. eta 3. zenbakietan adierazi diren enuren txostenak Osoko Bilkurari aurkezteko jardunbidea ezarriko da".*

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Honako hauek dira txosten honen helburuak, egindako eskaerari emandako erantzunetatik abiatuta:

- Zenbatekoen eta gaien arabera bildu eta sailkatzea toki entitateek egindako eragozpen-oharrak.
- Haiek aztertzea eta egiaztatzea haien arrazoiak edo kausak berdinak diren edo bat datozen toki entitate desberdinetan.
- Eragozpen-oharrak direla-eta emandako konponbideak aztertzea.
- Egindako azterketetatik heldu diren gomendioak egitea, ahal dela saiheste aldera toki entitateen kudeaketa dela-eta eragozpen-oharrak egon daitezela.

Informazioaren modu orokorrean aztertu da, baina adierazi egin ditugu beren garrantziarengatik edo errepikatzen direlako nabarmentzekoak diren gaiak. Hau da, txostenaren asmoa ez da kasu jakin bakoitzari buruzko azterketa egitea, baizik eta ikuspegi orokor bat eskaintzea.

Horretarako, Nafarroako 272 udali eta 61 mankomunitateri eskaera bat igorri zitzaaien posta elektronikoz, 2014. urtean egindako eragozpen-oharrei buruz informa ziezaguten. Eskaera hori 2015eko otsailaren 24an egin genuen, eta martxoaren 31ra arteko epea eman zitzaaien erantzuteko. Gero, beste eskaera bat igorri zitzaaien erantzuna bidali ez zutenei, eta maiatzaren 15era arteko epea eman zitzaaien.

Igorritako informaziotik abiatuta, eragozpen-oharrak aztertu eta sailkatu ditugu eta haien lagin bat aztertu dugu, entitateetara bisita egin gabe ere. Kasuren batean, telefono bidez argitasun batzuk eskatu ditugu.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontabilitateari buruzko auditoriako printzipio eta arauak, inguruabarren arabera egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Txostenak honako muga hauek izan ditu:

- Udal eta mankomunitate guztiek ez digute erantzun (ikus eranskinak).
- Eragozpen-ohar batzuetan ez da zenbatekorik aipatzen (batzuetan, haien ezaugarriak direla-eta ezinezkoa izan delako).

Muga horiekin batera, halaber, aipatu beharra dago ezen, batzuetan, eragozpen-oharrak baino gehiago espedienteak zuzentzeko alde aurretiko oharrak aurkeztu direla.

VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu. Azalpen hau bi ikuspegitatik egingen da.

1. Inkestak egin ditugun 61 mankomunitateetatik, 42k erantzun dute. Inongo kasutan ere ez da eragozpen-oharrik egin. Erantzuna bidali ez dutenetatik –1. eranskinean ageri da zerrenda–, gehienak gizarte zerbitzuen mankomunitate txikiak dira.

2. 272 udalak direla-eta honako datu hauek daude:

	Udal kopurua
Eragozpen-oharrak egin dituztenak	30
Eragozpen-oharrik egin ez dutenak	220
Ez dute erantzun	22
Guztira	272

2. eranskinean erantzun ez dutenen zerrenda ageri da. Oro har, 500 biztanletik beherako entitateak dira.

30 udal horietan, 161 eragozpen-ohar aurkeztu dira, 979.607 euroko guztizko kopurua egiten dutenak.

3. Kopuruari erreparatuta eta kontuan hartuta zenbatekoak ez direla homogeneousak eta, gainera, ez dutela garrantziaren arabera proportzionaltasunik, honela banatu ditugu:

Tarteen arabera zenbatekoen gainean	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatekoa	Batez besteko zenbatekoa
Zenbatetsi gabe	33		
<1.000	47	15.938	339
>1.000<5.000	34	76.793	2.259
>5.000<10.000	18	136.831	7.602
>10.000<20.000	13	169.147	13.011
>20.000	16	580.898	36.306
Guztira	161	979.607	7.653

Egindako eragozpen-oharrak honako arrazoiei buruzkoak izan dira:

Udal kopu- rura	Eragozpen- oharren kopurua	Kontzeptua	Zenbatekoa
11	33	a) Kontratazio-prozeduretako akatsak	507.641
8	24	b) Diru-laguntzen eta lankidetzaz hitzarmenen justifikazioan izandako akatsak	180.783
14	57	c) Behar adinako krediturik gabe egindako gastuak	221.825
8	11	d) Langileak, esker-sariak, kontratazioa	30.233
13	26	e) Besterik	34.162
3	10	f) Legezko fakturarik gabe (jaso-agiria)	4.963
57	161	Guztira	979.607

57 dira, zeren eta udal baten eragozpen-oharrak hainbat irizpideren arabera baitaitezke.

Honako hauek dira eragozpen-ohar horien arrazoiak:

a) Kontratazio-prozeduretan akatsak egotea.

Irizpide horren pean sailkatutako eragozpen-oharrek ondorengo jatorriak dituzte:

- Zerbitzuak ematea kontratua iraungita dagoenean.
- Herriko jaiekin lotutako hainbat kontratazio.
- Urte anitzeko kontratuetan, kontratuaren guztizko zenbatespena kontuan ez hartzea.

b) Justifikazioan gabeziak egotea.

Irizpide horren pean sailkatutako eragozpen-oharrek ondorengo jatorriak dituzte:

- Diru-laguntzen onuradun diren entitateekin hitzarmenik ez sinatzea.
- Erregistro ofizialetan halakotzat inskribaturik ez dauden elkarteak.
- Justifikazioan gabeziak egotea; oro har, kirol- eta kultura-erakundeekin lotutako funtsen aplikazioa egiaztatzeke garaian.

Halaber, diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat edukitzeko beharra aipatzen da.

c) Behar adinako krediturik gabe egindako gastuak.

Oro har, zenbateko txikiak dituzten kontu-sailak dira: haiek onesteko garaian egiaztatu da kontu-sailean nahiz lotura-poltsan dauden kredituak gainditzen direla.

d) Langileak.

Ordainketak, esker-sariak eta aparteko orduen ordainketak aldeztu aurretiko erabakiak eduki gabe edo araudiari egokitu gabe. Batzuetan, herriko jailetan dute jatorria.

e) Beste batzuk.

Kasuistika anitza dago honetan. Nabarmenezkoa da batzuetan gastua egiteko hasierako baimenik ez dagoela.

f) Legezko fakturarik ez egotea.

Oro har, gastu txikiak dira, eta haien justifikazioa jaso-agiri bat izaten da.

4. Lagin baten gainean egindako azterketatik, ez dugu bestelako alderdi esanguratsurik ondorioztatzen, arestian aipatutakoez gainera.

5. Eragozpen-oharrak honela ebatzi dira:

- 148 kasutan, alkateak edo udalaren osoko bilkurak ebatzi dute desadostasuna, eta espedienteazazapidetzen jarraitu da. Haien zenbatekoak 936.700 euro egiten du.
- 11 kasutan, espedienteazazuzendu egin da. Haien zenbatekoak 18.907 euro egiten du.
- Kasu batean, kontu-hartzailearen lana ondotik egin da, eta ikusi da lotura-poltsa gainditu egin dela. 24.000 euroko kopuru bat da.
- Kasu batean, diru-sarrerei buruzko ohar bat da, zenbatetsi ez dena.

Ez daukagu jasota kasu guztietan osoko bilkurari aurkeztu izana egindako eragozpen-oharren aurka entitateko lehendakariak eman dituen ebazpen guztiei buruzko txostena; izan ere, horixe eskatzen du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 246. artikulua.

6. Positibotzat jotzen dugu idazkari eta kontu-hartzaileen jarduketa, zeren eta aztertutako eragozpen-ohar askoren edukitik ondorioztatzen baita zorrotzak direla beren jarduketan, eta ikusten baita askotan kasuko udalak, eragozpen-oharren jakitun, prozedura zuzentzen duela, gertatutako berriz gerta ez dadin.

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu ezen, oro har, eragozpen-oharren arrazoi nagusiak honako hauek izaten direla: iraungitako kontratuak berritu ez arren prestazioa ematen jarraitzen da; kontratazioaren balioa zenbateske eta, horrenbestez, jarraitu beharreko prozedura aukeratzeko, urteko ordainketa guztiak kontuan ez hartzea; herriko jaiekin lotutako gastu batzuk; zenbait enti-

taterekiko harremanak (kirol klubak, musika bandak...); aurrekontu-kredituak gaitztea edo prozedura ez betetzea; langileen zenbait ordainsari (aparteko orduak, herriko jaietan lan egiteagatik eskertutakoak...), nahiz eta halakoetan zenbatekoak txikiak diren. Gehienetan, alkateak edo osoko bilkurak espedienteak izapidetzen jarraitzen dute.

Hori guztia dela eta, hona gure gomendioak:

- *Kontratuak esleitzeko kasuko prozedurak behar beste denborarekin deitzea, haien mugarekin baina lehenago ebatzita egon daitezen.*
- *Kontuan hartzea araudiak ezartzen duela urte anitzeko kontratuetan guztizko balioa hartu beharra dagoela kontuan esleipen-prozedura zein den finkatzeko.*
- *Herriko jaiak urtero errepikatzen den zerbait direnez, arrazoi hori dela-eta egiten diren gastuak eta kontratazioak araudi indardunari egokitzea.*
- *Egiaztagiriak exijitzea, araudiak exijitzen dituen baldintza guztiekin.*
- *Hitzarmenak sinatzea figura horren pean diruz laguntzen diren entitateekin.*
- *Exijitzea elkarteak inskribatuta egon daitezela araudian aurreikusitako erregistroetan.*
- *Langileen ordainsariak plantillan edo, kasua bada, hitzarmen kolektiboan adierazitakoari egokitzea.*
- *Gastuak finkatutako prozeduraren arabera egitea, horren barne direla hasierako baimena eta lotura-poltsako saldoa konprobatzea; eta, kasua bada, aurrekontu-figurak erabiltzea lotura-poltsan behar adinako kreditua hornitzeko, gastuak egin baino lehen.*
- *Osoko bilkurari aurkeztea egindako eragozpen-oharren aurka toki entitateko lehendakariak eman dituen ebazpen guztiei buruzko txostena.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. GURE ESKAERARI ERANTZUN EZ DIOTEN MANKOMUNITATEEN ZERRENDIA:

Moncayoko Uren Mankomunitatea
 Andia Mankomunitatea
 Allo, Arellano, Arronitz, Deikaztelu eta Leringo Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Irurtzungo Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Buñuel aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Los Arcosko Eskualdeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Zarrakaztelu aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Irantzu Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea
 Izarbeibarko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen eta Kirolen Mankomunitatea
 Bortzirietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea
 Azkoien aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 San Adrián, Azagra, Andosilla eta Carcarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Euskararen Kudeaketarako Nafarroa Iparraldeko Mankomunitatea
 Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea
 Orreaga Kirol Mankomunitatea
 Goi Erribera Kirol Mankomunitatea.
 Belotegi-Erremendia Argindarra Banatzeko Mankomunitatea
 San Frantzisko Xabierkoa Egoitzaren Mankomunitatea

2. ERANSKINA. GURE ESKAERARI ERANTZUN EZ DIOTEN UDALEN ZERRENDIA:

Anue	Galipentzu
Araitz	Goñi
Atetz	Xulapain
Bera	Lantz
Bertizarana	Legaria
Kaseda	Los Arcos •
Castejón •	Ollolabar
Elgorriaga	Petilla Aragoi
Eslaba	Urdazubi
Etaio	Atarrabia •
Fustiñana •	Zugarramurdi